



**Gipuzkoako
Bertsolari
Txapelketa**

**Andoaindartsuna,
gazteen
ikuspegitik**

Lehorreko arrantzalea itsasoan

AIURRI BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA. 458. zenbakia. 2015.10.9

Argazkia: © Patxi Uranga

GOIBURU GOLF CLUB



**-Haur eta Helduentzako ikastaroak
-Jatetxea irekia dugu egunero**

Etorri zaitez!

Telf: 943300845 -www.goiburugolf.com



Talleres KARRIKA, C.B

Ubilluts auzunea. 56.Pol. 10. zenb.
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 300 214 Faxa: 943 590 956



- **AUTO KONPONKETA**
- **MEKANIKA**
- **ELEKTRIZITATEA**
- **AIRE EGOKITUA**



ibilgailuetan espezialistak

BILGUNE BERDEA



etorri eta proba itzazu!

- ✓ Motorrerako behar duzun guztia
- ✓ Motore azterketak
- ✓ Mota guztietako Scooterrak
- ✓ Salmenta eta konponketak
- ✓ Quad ATV modelo guztiak

**PREZIO
INTERESGARRIAK**



BMW
R 1200 GS



Yamaha T-max
530

Grizzly 700



Ubilluts auzoa, Pol. 56-Nº12 - 20140 Andoain
Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456

www.azkainmoto.com / azkain@azkainmoto.com

Kalitatea eta segurtasuna zure zerbitzura

URPA

AUTOBUSAK

Mikrobusa 22/30 eserleku | Autobus litera

Tel.: 666 48 90 10 / 11 (24 orduak)
Tel.: 943 30 50 50 Faxa 943 30 50 60 (Garajea)



Ubillus auzunea. 55 polig. - 9 pabilioia, 4 zbkia. ANDOAIN (Gipuzkoa)

**Kolaboratzaileak:**

Txomin Garmendia, Antselmo Larrarte, Aitor Usandizaga, Garazi Kamio, Joxin Azkue, Mikel Manzisidor, Arantxa Iartza, Odei Esnaola, Iñaki Sorraín, Ainara Loiarde, Ander Leon, Jon Iraola, Iyuya Urrutia, Unai Mendizabal eta Haritz Mujika.

Euskaraz bizi nahi dut

Euskaraz bizi ahal izatea aspaldiko helburua da niretzat, baina gure gizartean, baita Gipuzkoa euskaldun honetan ere, hori egin ahal izateko oztopo dextentopatu izan dut. Euskaldun askok bizi izan ditugu horrelako egoerak:

Zerbitzu bat eskatzera joan eta aurrean dugunak:

■ *Gaztelera, mesedez, ez dut ulertzen eta.*

Talde batean hitz egiten hasi eta norbaitek:

■ *Gaztelera egingo dugu, horrela denok ulertzen dugu, ezta?*

Seiko talde batean batek euskaraz ez dakienean:

■ *Egin ezazu gaztelera, nire senarrak ez dizu ulertzen eta.*

Behin baino gehiagotan saiakerak egin ditut, baina gehienetan kokildu egin naiz, aspertu eta atzera egin dut, azkenean gogaituta gaztelera joz. Baina, nola lor dezakegu poliki-poliki euskararen erabilera aurrera egitea? Orain dela gutxi, lankideekin batera, TELP (Norberaren hizkuntz espazioaren tailerra) izeneko ikastaro bat egiteko aukera izan dut EMUN-ek emana. Bertan helburu hauek lantzeko aukera izan dugu:

■ *Euskaraz egiten dugunean sumatzen dugun deserotasuna gutxitu.*

■ *Jokabide asertiboari esker gusturago sentitu.*

Asertibitatez jokatzera lortu behar dugu, pentsatzen eta sentitzen duguna esanaz, hala ere gurekin ari denari min eman gabe, berea ere ulertuz, baina euskaraz hitz egiteko gure eskubidea errespetatzeko eskatuz. Ez modu pasiboan berehela gaztelera pasaz, ezta modu agresiboan ere, etengabeko gatazka eta eztabaidetan sartuz. Goxo-goxo, baina

ahal den gehiena guk euskaraz egitea lortuz. Izan ere, nork debeka dezake nik euskaraz egiteko hartu dudana deliberoa? Eta egoeraren arabera, gaztelera egingo badut, nik neuk hartuko dut erabaki hori, ez besteek inposatuta.

■ *Euskaraz aritzeko baliabideak ikasi.*

Lehen hitza euskaraz egin eta hori mantentzeko ahalegina nola indartu; nola sendotu nire burua lasaitasunez jokatzeko egoera hauetan...




HABEk ere jarri ditu Youtuben bideo interesgarri batzuk txipa aldatzera gonbitea egiten digutenak: "Haurrari euskaraz eta bikoteari gaztelera"; "Lehen hitza euskaraz"; "Taldea erderaz batentatik"; "Euskaldun berriaren pazientziarik ez".

Ikastaroa egin ondoren indar berriz hartu dut euskaraz egiteko helburua eta hara nolako esperientzia baikorrak izan ditudan:

■ Orain arte gaztelera hitz egiten nuen familiakide batekin, nik euskaraz egiteko erabakia hartu dudala komunikatu eta hala hasi naizenean berarekin irmoki, bera ere euskaraz erantzuten ari zait!!

■ Euskaldunberri ezezagun batekin hizketan hasi, lehen hitzak euskaraz esan eta probatu dut ulertzen didala, baina berak dena gaztelera erantzun dit. Halako batean komunikazioa errazteko pixka bat erderaz egin dudanean, berak geratu eta "mesedez, jarraitu euskaraz, ulertzen dizut eta hala ikasi egingo dut!!". Nik eskerrak eman eta hala jarraitu dugu elkarriketa luzea: nik euskaraz (mantso eta ondo ahoskatuz) eta berak gaztelera.

Euskaraz ulermen maila duen jende asko daukagu inguruan. Gehiago hitz egitea eta erabilera aurreratzen joatea posible da gure herrian!!

**4-5 LUZE ETA ZABAL**

Mintzanet, euskaraz on-line eta doan praktikatzeko aukera

6-7 ESKUALDEA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa abian da

8-9 ANDOAIN

Andoaindertasuna, gazteen ikuspegitik

10-11 AMASA-VILLABONA

Iban Agirre alkateari elkarriketa

12-13 ZIZURKIL

Lehorreko arrantzalea itsasoan

14 ASTEASU

Igerilekuko tabernariekin solasean

15 LARRAUL

Txikun ikastaroa berriro martxan

16 AMASA-VILLABONA

Sufrimenduak aritzeko ahaleginetan lanean

17 TOKIAN TOKIKO

Joxe Arrastoa perretxikozalea
PIL-PILEAN
Porru eta ganba pastela

18-19 HAMABOSTEAN BEHIN**20 ZORION-AGURRAK****21 AGENDA****22 AZKENA**

Andoingo motor festa

Egoitza: Arantzibia plaza, 4-5 behe. Andoain.
Tel.: 943 300 732. **Faxa:** 943 300 731.

Zorion agurrak: diseinua@aiurri.com

Arduraduna: Ainhoa Arozena.

@: arozena@aiurri.com

Erredakzioa: Ainhoa Gil, A. Arozena.

@: gil@aiurri.com

Erredakzio laguntzaileak: Jon Ander Ubeda, Xabier Lasa, Izarne Olano.

Edizio jarraia: www.aiurri.com

Diseinua, maketazioa: Maddi Trutxuelo.

@: diseinua@aiurri.com

Publizitate arduraduna: Fernanda Irazu.

@: publizitatea@aiurri.com

Administrazioa, banaketa, harpidetzak:

Garbiñe Ugartemendia.

@: idazkaritza@aiurri.com

Banatzaileak: Andoain: Mikel Arregi.

Amasa-Villabona, Elbarrena, Aduna,

Zizurkil goia, Asteasu eta Larraul: Maitane

Esnaola.

Inprimategia: Antza inprimategia.

Lege Gordailua: SS-202/94.

ISSN: 1134-0614. | Tirada: 1.650 ale.

Urteko harpidetza saria: 35 €

Hamaboskari bakoitza aleko: 2 €

TOKIKOM

Argitaratzaile eta ekoizlea:



Babesleak:



Laguntzaileak



Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



AIURRI ALDIZKARIA KIOSKOETAN ERE SALGAI

Harpidedun ez denak aldizkaria erosteko aukera dauka hamabostean behin, 2 eurotan.

Andoain: Ernaitza, Stop. **Amasa-Villabona:** Basajaun, Amasa kafetegia. **Zizurkil:** Ogi-zuri

Mintzanet, on-line, euskara praktikatzeko aukera ematen duen egitasmo bakarra da. Doakoa gainera. MaraMara taldearen baitan, Ainara Loiarte andoaindarra arduratzen da egitasmoa bideratzeaz.

Mintzanet, euskaraz on-line eta doan praktikatzeko aukera

“Euskara ikasteko on-line dagoen proiektu bakarra da Mintzanet, doakoa gainera!”

Kontaiguzu, zer da Mintzanet egitasmoa?

Herri guztietan ezaguna da dagoeneko Mintzalaguna, mintza-praktika egiteko euskaldun zahar eta berriak biltzen dituen ekimena. Bada, Mintzalagunaren ildotik abiatuta, egitasmo horren on-line bertsioa litzateke Mintzanet, 2012ko abenduan abian jarri zena eta aurrekoaren osagarri dena. Batetik bidelariak leudeke, euskara praktikatu nahi duten pertsonak eta, bidelagunak bestetik, euskaraz dakiten pertsonak eta ez dakitenei laguntzeko prest daudenak, beraien denbora debalde eskainiz. Elkarrekin hitz egiteko, guk sortutako plataforma edota Skype erabil daitezke. Mintzalaguna egitasmoan, euskaldun zaharra berri bat baino gehiagorekin elkartu ohi da, oro har, txanda bakoitzean. Mintzanet egitasmoan, berriz, bidelagunak bidelari bakarrarekin hitz egiten du saioetan.

Ondorioz, zailtasun edo gabeziarik handiena bidelagunak aurkitzea izaten da. Praktikatu eta ikasi nahi duen jendea badago, baina praktikatzeko jendea falta zaigu, ordenagailuaren aurrean bat-batean aritu beharrak muga hori baitu.

Zein baldintza bete behar ditu bidelagunak?

Bidelagun izateko ez da zertan euskaraz alfabetatua izan beharrik, baina bidelariei gutxieneko maila eskatzen diegu, A2 / B1aren parekoa, elkarriketa euskaraz ziurta dadin. Gutxienez hilean behin bidelariarekin elkarriketa izatea eskatzen da, baina gehienek, astean behin edo bi astez behin egiten dute. Gutxienez ordu erdiko saioa izan behar du, baina normalean ordubete edota ordu eta erdikoak izaten dira, orduerdia motz geratzen baita.

Euskararen alorrean, buru-belarri

Ainara Loiarte andoaindarrak ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen. Euskararen alorra izugarri gogoko du eta euskalgintzan lanean dihardu azken urteotan, “euskara irakasle aritu nintzen iaz AEK euskaltegian. Oso lanbide polita da. Pozgarria zen ikasleak euskara ikasteko zuten irrika sumatzea, lanerako gogoz gerturatzen ziren euskaltegira.

Mintzanet egitasmoan ere antzeko ahalegina nabari dut. Jendeak ilusioa duelako ematen du izena, bai ikasleek eta baita laguntzaileek ere. Euskara lantzearekin batera, beste pertsona bat ezagutu eta harreman bereziak sortzeko oso egitasmo erakargarria da Mintzanet”.



EHUko Udako Ikastaroetan egindako aurkezpena.

Bidelagunari bere denbora libre eskatzen zaio eta bidelariari euskaraz hitz egiten askatzen laguntzearekin batera, harreman berriak egiteko aukera izaten du. Neroni ere bidelaguna naiz eta esperientziak merezi duela esan dezaket, bidelariak ekarpen ugari egiten duelako.

Mintzaneteko erabiltzaileek –bai bidegile nahiz bidelagunak–, teknologiarekiko gutxieneko jakintza behar du; besteak beste, e-maila, webgunea edo Skyperen erabilera ezagutzea... Baina ordenagailua erabiltzen ez duten eta ekimenean parte hartu nahi duten pertsonak artatzen ohituta gaude, behar dutenei laguntza eskaintzen diegu. Adineko pertsona batzuei, zaila egiten zaie martxa hartzea, baina, oro har, ez da arazorik izaten arlo horretan.

Zenbat kidek hartzen du parte egitasmoan? Zein profiletakoak?

Ekimena abian jarri zenetik 800 pertsona inguruk hartu du parte. Egun 300 erabiltzaile inguru dugu, 17 urtetik 89 urtera bitartekoak. Ez dago adin mugarik eta parte hartzaileen adin tarte hori oso aberatsa da, adin ezberdineko jendearen artean harreman politikak sortzen baitira.

Euskal Herriko mugetatik diasporaraino zabaltzen da eskaintza...

Erabiltzaileen %20a atzerriar da: Argentina, Uruguai, Estatu Batuak, Ingalaterra, ... Diasporako kide gehienekin lekuan lekuko Euskal Etxeen bidez jarri gara harremanetan eta parte hartzea erabaki dutenak, oso jarrera ona erakutsi dute ekimenarekiko. Kanpoan bizi direnentzat, batik bat, oso aukera ona da, ez baitute euskaraz hitz egiteko beste biderik.

Zer nolako erantzuna du ekimenak Beterri -Aiztondo eskualde mailan?

Badakit hiru andoaindar badirela tartean, baina Donostiako jendea gailentzen da nagusiki, bertan ezagutzen baita gehien proiektua. Gure eskualdean, gehiengoak ez du oraindik Mintzanet egitasmoa ezagutzen. Lerro hauek baliatuko ditut, beraz, eskualdeko herritarrak ekimenean parte hartzera gonbidatzeko: Bidelagunak behar ditugu. 30 pertsona zain daude bidelagunak izan eta euskaraz hitz egiten hasteko.

Hiru urteko bidea egina du egitasmoak. Denboraldi horren inguruko zein irakurketa egiten duzue?

Jendea izena ematea kostatzen zaio gehien. Alferkeria sortzen da ekimen berriren batean hasterakoan. Baina behin izena eman eta lehen saioak egindakoan, parte hartzaileak gustura agertzen dira eta, denbora igaro ahala, harreman bereziak sortzen dira. Irailean egin genuen Mintzaneteroen lehen bazkaria eta bertan ezagutu ziren lehen aldiz parez pare hainbat parte hartzaile.

Orain, esaterako, 'Adinekoen egoitzak' izeneko proiektu berri bat sortu da. Azpeitian gure egitasmoaren aurkezpena egin eta gero, hango adinekoen egoitzatik deitu ziguten bi egoiliar zituztela, Rocío (85) eta Mila (73) bidelagun izan nahi zutenak. As-tan behin aritzen dira geroztik eta egun, Gipuzkoako adinekoen egoitza ugaritan ditugu bidelagunak. Oso positiboa izan da egoiliarren parte hartzea eta oso gustura daude beraiek ere, kanpo harremanak egiteko beste aukera bat delako haientzat.

Bidelariak lortzen al dute euskara ikastea?

Oro har, bai. Badaukagu bidelari bezala hasi zen jendea, euskaraz hitz egiteko helburua zuena, eta denboraren poderioz, euskara maila hobetu ondoren, bidelagun izatera igaro dena. Era berean, tartean badira bidelagun eta bidelari bezala, bi aldeetan aritzen direnak ere. Bestalde, diasporako parte hartzaileen artean badaude, euskal arbasorik edo abizen euskaldunak ez duten parte hartzaileak. Euskara gustatu eta ikastea erabaki dutenak. Esperientzia polit asko biltzen du Mintzanet-ek.

Egitasmoaren koordinatzaile lanetan diharduzu. Zein eginbehar betetzen duzu zehazki?

Izena ematen duten parte hartzaileen datuak kudeatu eta bikoteak sortzen ditut, bidelaguna bidelariarekin harremanetan jarritz. Ordutegia zehazten dut lehenik, normalean bidelagunari lehentasuna emanez. Bikote horiek sortu, bata bestearekin harremanetan jarri eta saioak lotzen ditut, gure webguneko datu-basean saio horien maiztasuna zehaztuz. Erabiltzaileak koordinatzea da, beraz, nire lana batetik, izan ditzaketen arazoei erantzunez. Bestalde, alde instituzionalagoa ere egokitzen zait: hain zuzen ere, dirulaguntzen arloa kudeatu edota erakunde ezberdinekin bilerak egitea. Izan ere, erakunde askorekin ditugu hitzarmenak: Besteak beste, AEK, Topagunea, Etxepare Institutua edota EHUrekin. Beste alde garrantzitsua Mintzanet egitasmoa bera ezagutaraztea denez, aurkezpenak ere egiten ditugu. Orain, urrian, esaterako, Bizkaia aldean ibiliko gara, Gipuzkoa mailan toki ezberdinetan aurkeztu baitugu dagoeneko egitasmoa. Eta noski, webgunea eta sare sozialak ere kudeatzen ditugu. Ekimenaren berri zabaltzeko Facebook eta Twitter sareak ditugu, egun ezinbesteko direnak.

Era berean, albiste ezberdinak tartekatzen ditugu webgunean, erabiltzaileen esperientziak kontatzearekin batera. 'Hitzaaldi irekiak' izeneko atalean, jendea ezaguna elkarriketatzen dugu eta erabiltzaileen parte hartzea bultzatuz, galderak egiteko aukera luzatzen diegu. Webgunean biltzen diren esperientzia ezberdinek asko laguntzen dute jendea izena ematera animatzen. Bidelari nahiz bidelagunen eskarmen-tuak jasotzen dira, idatzita nahiz bideoz.

Mintzanet ekimenaren baitan bada saiakera gehiago ere. Azalduko al duzu haien berri?


Etxepare institutuarekin elkarlanean, badugu 'Euskal sortzaileak' izeneko beste ekimen bat, zeinetan, Mintzaneten bidez, munduan zehar zabaldua dauden irakurketa klubetako kideek zuzeneko elkarriketak izaten dituzten euskal idazleekin. Saio horiek gure webgunean txertatzen ditugu gero. Gainerakoan, Mintzanet egitasmoa indartzeko asmoz, hainbat ekintza ezberdin antolatzen dugu urtean zehar: Mintzanet sariak (bidelari edo bidelagun bana sarituz), lehiaketa (liburu sorten zozketa)... Egitasmo zabala da Mintzanet, ate asko irekita dituen. Hazten jarrai dezan nahi dugu eta jendeak ezagut dezan. Euskara praktikatzeko on-line dagoen proiektu bakarra da, doakoa gainera!

Irabazi asmorik gabeko ekimena

Donostiako Udalak, Mintzanet ekimenaren antzeko proiekturen bat abian jartzeko nahia erakutsi ondorenean, Donostiako MaraMara hizkuntza zerbitzuen taldeak bere gain hartu zuen ekimenaren ardura. "Irabazi asmorik gabeko proiektua da. Parte hartzea doakoa da eta euskaraz hitz egitea askatzeko erraztasunak eman nahi dira denboraz larri bizi garen garai hauetan", zehaztu du Ainarak. Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzetatik bizi da proiektua.

Izena emateko:

- www.mintzanet.net
- Facebook
- [Twitter@mintzanet](https://twitter.com/mintzanet)



Irailaren 20an hasi zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Beasainen. Abenduaren 20ra arte, ia etenik gabe, saioak izango dira asteburuetan Gipuzkoako herri ezberdinetako antzokietan.

“Geroz eta maila handiagoa daukate bertsolari gazteek”

“Enbutua estutzen joaten da eta zirrikituak aprobetxatzen asmatzen duenak izango du aurrerako aukera”

Beterri-Aiztondo eskualdeko bost bertsolarik hartuko du parte txapelketan. Oihana eta Beñat Iguaran amasarrek, Unai Mendizabal zizurkildarrak eta Haritz Mujika asteasuarrak lehen aldiz eman dute izena, Jexux Mari Irazu larrauldarra, berriz, ezaguna da txapelketan, orain lau urte ere finaleko saioan aritu zen, seigarren postua eskuratuz.

Orduko hartan finalean abesteko ateetan geratu zen Amaia Agirre billabonatarra; aurtengoan, berriz, ez du bertsolari gisa parte hartuko, bai antolaketa. Abiatu berri den txapelketaren inguruan hitz egin du Amaiak.

Lasaia jarraituko al duzu txapelketa taulatuaren azpialdetik, entzule gisa?

Dudarik ez da lasaia jarraituko dudala entzule bezala, eta Bertsozale Elkarteko langilea naizenez, antolakuntza ere laguntzen arituko naiz eskatzen zaidan neurrian.

Aurtengoan taula gainean lau ordezkari dituzula esan daiteke. Zer eragiten du bertso eskolan zurekin ikasi duten eskualdeko lau bertsolariak lehen kanporaketa saioak gainditu eta txapelketako oholtza gainean ikusteak?

Poza eta harrotasuna ere bai. Urduritasun uneak ere bizi izan ditut lehenengo saioan aritu baitira horietako batzuk, baina egia esan oso lan txukuna egin dute. Eta eurak ere gustura egoteko moduan dira.

Besteak beste, Haritz, Oihana, Unai eta Beñat umetxo zirela hasi ziren bertso eskolan zurekin eta indartsu datoz plazara. Irakasle ez ezik, lagun eta bigarren amatzat ere bazaituzte...

Ez dugu barre gutxi egin eskaini zizkidaten agurren harira. Oso harreman berezia da gure artean daukaguna. Lehen irakasle eta ikasle ginen, baina urteak dira elkarren lagun eta Harituz taldeko bertsokide garelako, eta bertsoak lotzen gaituen arren lagun giroak elkartzen gaitu askotan. Baliteke eurek niganako zor txiki bat sentitzea, baina nik ere badaukat eurei zer eskertu. Bertso eskola askotan ibili naiz baina ez dut horrelako talde berezirik izan, hainbeste denboran talde giroari eutsi diotenak. Orain bakoitzak bere bidea egin behar du, baina bakoitzak badaki besteak



Argazkia: © Conny Beyreuther

**Zure iragarkia
hemen
943 300 732**

FRANCISCO MENDIKUTE

HARATEGIA - URDAITEGIA

- Esne produktuak, hautatutako kontserbak eta kalitatezko okela
- Euskal Herriko produktueta oinarritua



Kaletxiki, 15
☎ 943 590 258
ANDOAIN

ere hor gaudela behar dugun eta gaituzten aldiro, eta hori oso aberasgarria eta polita da.

Berrogeita hiru bertsolarirekin abiatu da txapelketa. Zer nolako maila sumatu duzu abialdian?

Geroz eta maila handiagoa daukate bertsolari gazteek, eta hori antzemango da aurtengo txapelketan ere. Gaztea beti bultzaka dator eta lekua egin nahi du, eta gogor entrenatzen ari dira. Udaberriko saioetatik udazkeneko saioetara badago aldea, bai maila aldetik, bai tentsio aldetik eta baita entzulearen eskakizun mailari dagokionez ere. Gero ikusi egin behar bakoitza bere maila emateko gai den ala ez. Denok dakigu zer den txapelketa, eta beti ez da erreza izaten bi ordu eta erdian bakoitzaren onena oholztan ateratzea.

Azti lanetan jarrita, nola aurreikusten duzu aurtengo txapelketa? Sorpresarik izango al da?

Nik uste dut Euskal Herriko txapelketarako txartelaren lehian izen berriak sartuko direla, eta talde horretan sartzea ez da xamurra izango. Era berean, finalari begira, pare bat aurpegi berri ikusiko ditugula iruditzen zait, baina auskalo! Lehengokoak ez daude amore emateko eta oraingoek lekua egin nahi dute. Enbutua estutzen joaten da eta zirriki-tuak aprobetxatzen asmatzen duenak izango du aurrerako aukera.

Orain lau urte finalaren ateetan geratu zinen, pauso bakarrera. Aurten ez zara parte hartzeranimatu, baina horrek txapelketarako ateak guztiz itxi dituzula esan nahi al du?

Hogei urte igaro ditut txapelketetan lehiatzen, eta nire burua nekatuta antzematen nuen. Beti izan diot sufritzeari beldur izugarria, eta aurtengorako ez nuen entrenatzeko asti handirik izango nuenik sumatzen, eta nire buruarenganako duintasunagatik eta entzuleari zor zaion errespetuagatik atsedena hartzea erabaki dut. Alde batetik gogo eta anbizio falta antzematen nuelako, eta bestetik nire bizitza pertsonalean beste etapa eta garai batean nagoelako. Txapelketa batera joateko barrutik eta buruz indartsu egotea ezinbestekoa dela iruditzen zait, eta ni zoritxarrez ez nago nire onenean. Bertso saioetan gozatzen ari naiz baina txapelketa beste erantzukizun bat da. Ez dakit lau urte barru berriz ere aurkeztuko ote naizen. Urrun ikusten ditut data horiek. Baina nork daki! Nire bizitzak azken bi urteotan aldaketa asko jasan ditu eta datorren lau urteotan pentsa! Jejeje.

Eskualdeko bertsolariak bigarren fasera sartzeko bidean



Elgoibarko Herriko antzokian, Jon Zaldia gai-jartzaille, Oihana Iguaran bertsolarien artean.

Irailaren 20an Beasaingo Usurbe antzokian eman zitzaion hasiera Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen final zortzirenari. Lehen saio hartan eskuratu zuten bertsolariek orain arteko puntu kopururik altuena. Jon Maiak lortu zuen lehenengo postua 456,5 punturekin. Ane Labakak bigarrena 444 punturekin.

Final zortzirenetako sei saioetan lehen postua lortzen duten sei bertsolariak zuzenean igaroko dira hurrengo fasera. Ondorioz, momentuz jakina da bertan izango direla Jon Maia (456,5), Arkaitz Oiartzabal 'Xamoa' (439,5), Beñat Lizaso (426) eta Manu Goigana (428) datorren asteburuko bi irabazleekin batera. Zuzenean sailkatuko diren bertsolariak ez ezik, puntu gehien eskuratu dituzten beste hamazazpi bertsolari ere igaroko dira hurrengo fasera. Datorren asteburuko emaitzak jakin ostean ezagutuko da, beraz, bigarren fasean abestuko duten bertsolarien zerrenda osoa.

ESKUALDEKO BERTSOLARIEN ORAIN ARTEKO SAILKAPENA, POSTUAREN ARABERA:

Unai Mendizabal Jauregi.

ZIZURKIL. 424 puntu. 10. postua.
Azpeitia, Soreasu antzokia. 2015-09-26

Oihana Iguaran Barandiaran.

AMASA. 423,5 puntu. 11. postua.
Elgoibar, Herriko antzokia. 2015-10-03

Beñat Iguaran Amondarain.

AMASA. 420 puntu. 13. postua.

Beasain, Usurbe antzokia. 2015-09-20

Haritz Mujika Lasa.

ASTEASU. 409 puntu. 19. postua.
Beasain, Usurbe antzokia. 2015-09-20

IGANDEAN ANDOAINEN

Urriaren 10 eta 11n, Arrasaten eta Andoainen jokatuko dira final zortzirenen azken bi saioak. Igandean, 17:30etatik aurrera, Andoaingo Bastero Kulturunean arituko diren bertsolariak: Ibai Esoain, Gemma Urteaga, Jokin Uranga, Antton Fernandez, Asier Azpiroz eta Unai Gaztelumendi.

Mikela ANSA GOENAGA andrea,

(Anbroxio Iztuetaaren alarguna),

Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko bazkide aitzindaria.
Irailaren 30ean hil zen, Andoainen, 88 urte zituela.



*Zu izan zaitugu lagun Mikela,
zu aitzindari gordea,
Bazkunarentzat kide jatorra
gure lanaren goldea;*
*Onbera zinen eta zintzoa,
euskaltzale ezin hobea;
indar berriaz geroan ere,
ernatuko den lorea.*

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna,
Andoain, 2015eko urriak 6.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

Joaten ari zaigun 2015 urte honetan Andoainen iraganari keinu ugari egin zaizkio. Etorkizunera begira, andoaindertasuna hizpide hartuta, Aiurrik gazte belaunaldietara jo du iritzia eske.

Andoain eta herritartasuna gazteen ahotan



1


Andoaindertasuna indartzeko baliagarri iruditu al zaizu mendeurrena?

2

Urtean zehar egin diren jardueretan parte hartu duzu. Zein izan da zure esperientzia?

3

Etorkizunera begira horrelako ekitaldietan egoteko asmoa/ borondatea ba al duzu?



MADDI ETXEBERRIA

“Andoaindar izaeraz harro egoteko baliagarria da”

1

Bai. Uste dut jendea asko lagundu diola herriaren historiaz ohartu, eta andoaindar izaeraz harro egoteko. Ekintzek garai bateko errealitatea islatu dute modu askotan, eta euskaldunoi festa giroa gustatzen zaigunez, festa giroan eginiko ekitaldiak ezinhobeak izan direla iruditzen zait. Horrek, herrian jendeak presentzia handiagoa izatea ekarri du, eta, ondorioz, herri-giroa sustatu da.

2

Parte hartu dudana ekitaldi potoloena, Guduaren antzezpena izan da. Bai Guduan eta bai gainontzeko

ekitaldietan izugarri disfrutatu dut. Jende berria eza-gutzeko aukera ere eman dit, eta herriaren erantzuna ere oso ona izan da. Ondorioz, esperientzia guztiz positiboa izan da.

Lastima, bosgarren mendeurrenean ziurrenik ez naizela hemen izango.

3

Inolako dudarik gabe. Batetik, lehen esan bezala, herri-giroa sustatzen duten ekitaldiak direlako. Bestetik, disfrutatzeko aukera ematen digutelako, eta azkenik, lagunekin zein jende berriarekin harremanetzeko aukera ederra direlako.



UNAI ORMAETXEA

“Elkarbizitza indartzeko aproposa izaten ari da”

1

Oreteretan jaio banintzen ere beti sentitu izan naiz andoaindar, eta gaur egun bertan egiten dut bizia. Mendeurrenagatik herrian aurrera eramandako dinamikekin adin ezberdinak jendea elkartzea lortu dutela uste dut eta hori aberasgarria iruditzen zait. Bizi garen herriaren irudi positiboa eraikitze baliagarria iruditzen zait, bai eta elkarbizitza indartzeko aproposa ere.

2

Andoaingo Guduaren antzezpenean hartu nuen parte, Nikolas pertsonaiaren paperean, beste hainbat jendekin batera. Esperientzia oso polita izan zen,

eta niretzat hainbeste jendekin eta hain baliabide anitzekin egindako lehen antzezpena izan zen. Oso modu ona da gure herriaren historia ezagutzera emateko, liburutako orrialdeetatik atera eta kaleetan barrena irudikatze.

3

Asmoa beti dago hor eta gauza desberdinak egiteko gogoia ere bai. Nik jendea animatuko nuke, bitan pentsatu gabe, herrian antolatutako ekimenetan parte-hartzera. Izan ere, jenderik ezean, ez dago era honetako ekintzak antolatzerik. Errazena gauzak prestatzen hastea da, zailagoa da horri eustea, baina ahaleginak ematen ditu bere fruituak.

“Ez naiz Guduaren errepresentazioa egitearen aldekoa”

1

Egia esan herrian halako guda izan zen ezagutzarik ez nuen. Herrian zehar banatutako informazio aldizkariari esker edota nonbait irakurri izanaren ostean jakin nuen Andoaingo Guduaren historia eta detaileak. Hori jakiteak ez nau andoaindarrago egiten, baina bai esan dezaket andoaindar izateak beste zentzu bat hartzen duela geure historia guztia jakin ostean. Eta horretan bai, positiboa izan da mendeurrenaren ospakizuna.

2


Herri antzerkian musikari bezala hartu nuen parte. Entseguak gogorrak izan ziren, ordu asko eman genituelako Basteron sartuta. Baina merezi izan zuen ikuslegoa oso gustura geratu baitzen. Azken emaitza horrekin oso pozik geratu nintzen, eta alde horretatik esperientzia positiboa izan zen niretzat.

3

Etorkizunera begira ez dut asmorik ekitaldietan parte hartzeko. Ni nire iritzian ez naiz Guduaren errepresentazioa egitearen aldekoa, bertan egondako eta hain gogor borrokatu zuen jendearen ohorea zikinduarazi egiten duela uste baitut. Gerra bat ez da positiboa, jakinda ezer ospatzeko ez dagoela.

Nire ustetan hobe izango zen ikus-entzunezko bat lantzea, non andoaindar aitzindarien duintasuna goستن den, edota monumentu bat beraien omenez altxatzea.

Jendea horrelako ospakizunetan ondo pasatzera joaten da, espektakulua ematera, eta ahaztu egiten da hor atzean egon zen sufrimendu, borroka eta min guztia. Hori ez da inoiz errepresentatu ahal izango, nik uste iraganeko gudari haien duintasunarekin, sufrimendurekin eta minarekin jolasten ari direla.



ITSASO MUNGIA

“Lehen aldia izan da herri identitatea landu dena”

1

Nire iritziz, andoaindarrok ez daukagu herriarekiko harrotasun sentimendu hori inguruko beste herrietan dutena bezalakoa. Baina nire ustez, lehen aldia izan da herri modura, identitate hori landu dena. Beraz, bai, baliogarri egin zait. Hala ere, mendeurrena aitzakia ona izan bada ere, iruditzen zait, gehiago landu beharko litzatekeela; bi norabidetan, herritik zein instituzioetatik.


2

Urte hasieran egin ziren hitzaldietara eta antzerkira joan nintzen eta Andoaingo Guduan parte hartu

nuen. Ekintza interesgarriak iruditzen zaizkit, gure herriaren historia ezagutzeko baliagarriak izan direlako. Baina, ez dut uste ekintza puntual batzuk kenduta, oro har, herriaren osotasunera heltzea lortu dutenik. Egia da gurea ez dela oso herri parte hartzailea orokorrean, baina gabezia horri aurre egitea lortu behar dugu.

3

Etorkizunean antzeko ekitaldi gehiago antolatuko balira, eta neure gogokoak badira, parte hartuko nuke.



ANE AMUTXASTEGI

“Herritar guztion partaidetza sustatu behar dugu”

1


Mendeurrena ospatzea oso interesgarria izaten ari da. Gure herriarekiko dauzkagun sentimenduak indartzeko eta herriari bultzada txiki bat emateko.

2

Antolatu ziren hitzaldiak oso lagungarriak izan ziren herriari buruz eta 400 urte hauei buruz gehiago jakiteko. Hitzlariak kategoriakoak izan dira. Inauterietan hainbat konpartsek keinu bat egin genion mendeurrenari, esaterako; Izartxon lau mendeak gogora ekarri genituen: burdinaren ferroiak, jaun-txoak, karlistadak eta plazaolako trenbidea.

3

Bai noski, nahiko saltsatan sartuta banago ere, uste dut herritar guztion partaidetza sustatu behar dugula. Lerro hauen bidez jendea animatzen dut parte hartzera eta orain arte egin diren ekintzen antolatzaileei zoriontzeta besterik ez.



IGOR BERE



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskara Zuzendaritza

Amasa-Villabonako alkate gisa lehen hiruhilabetekoa igaro ostean, denboraldi horren irakurketa egitearekin batera, euren asmoen berri azaldu du Iban Agirrek.

“Aho handiko bost edukiontzi proposatzen ditugu”

“Udal langileei eskerrak eman nahi dizkiet eskainitako laguntzagarritik”

Zer moduz abiatu da alkatetza? Lehen hila-bete hauen zein irakurketa egiten duzu?

Aurrez politikagintzan esperientziarik ez duen pertsona naizenez, ikasten eta kokatzen ari naiz. Oso langintza aberasgarria iruditzen zait, gai ezberdin ugari jorratzen delako. Udal langileei eskerrak eman nahi dizkiet eskainitako laguntzagarritik, horretarako aprobetxatu nahi dut tarte hau.

Ardura handiko lana da alkatearena eta hitz guztiak ondo neurtu behar dira okerreko interpretaziorik ez izateko. Erritmo biziko lana da, martxa handikoa, bilera bat bukatu orduko beste gai ezberdin baten ingurukoa hasten da eta, hurrengo segidan...

Uztailaren 1ean hasi nintzen soilik Udaleko lanarekin, au-

rrez lantokian eta udaletxean bietan aritu bainintzen. Santio jaiak iritsi ziren segidan eta festek hartu zuten orduan tarte guztia. Oporrak etorri ziren gero. Irailean ikusi dugu egunerokotasunaren benetako martxa eta erritmo hori hartzen ari gara.

Zein gai nabarmenduko zenuke eskuartean dituzuenen artean?

Zaborren gaia nabarmenduko nuke, dudarik gabe. Irailaren 21ean izan genuen Mankomunitatearekin lehenengo bilera eta bertan, atez ateko sistema aldatzeak zein kostu izango lukeen aztertze eskatu genuen. Eta horretan gabilta, galdeketa egin behar balitz, herritarrei zer bozkatzen duten jakiteko datuak eman ahal izateko. Hala ere, EH Bildurekin akordioa egin nahiko genuke eta modu horretan ez genituzke herritarrak bozketarekin nekatuko. Denon arteko akordioa lortzea gustatuko litzaidake eta aukeratzen dugun sistema, egokia eta denbora luzerako izatea. Eta ez gobernu aldaketa gertatzen denean, berriz ere sistema aldatzen hastea. Ahalik eta adostasun maila altuenarekin hartu beharko genuke erabaki hori, bestela galdeketa egingo baitugu, herriak zer nahi duen garbi jakin eta haiek esaten dutena ezartzeko.

Zer proposatzen duzue atez ateko sistemaren aurrean?

Aho handiko bost edukiontzi proposatzen ditugu, lehengo laurak eta marroia bosgarrena, errefusarentzat; lehen bezala, inolako eragozpenik gabe, bakoitzak nahi duenean zakarra ateratzeko aukera izan dezan.

Alkatearekin aurrez aurre biltzeko

Alkatetzan, udaletxeko lehen solairua.

HITZORDUA ZEHAZTEKO:

- E-mail: alkatetza@villabona.net
- Telefonoa: 943 69 21 00

ASTEROKO ARRETA ORDUTEGIA:

- Astearte goizetan: 09:00-13:30
- Ostegun arratsaldetan: 16:00-19:00



Denbora pasa ahala, jendea geroz eta erreago dago atez ateko sistemarekin. Herritar askok ez dute gogoko eta ez dute errespetatzen behar den bezala. Hauteskundeetan garbi geratu zen sistema hori aldatzeko eman zigutela bozka eta guri dagokigu orain gai hori kudeatzea.

Hainbat herritarrek zaborra lurrera botatzen dute, zintzilikatu ere egin gabe. Lurrean dauden zabor poltsak beste bide bat erabilita jasotzen dira eta aparteko kostua sortzen dio horrek Udalari. Ulertzen ditut sistema gogoko ez duten herritarrek, baina ezin dira gauzak azkar egiteagatik gaizki egin. Guztion akordioa lortuta sistema egokia jartzea litzateke egokiena. Denon gustuko sistema aurkitzea espero dugu eta gastuak murriztea, atez atekoa oso garestia delako.

EH Bildurekin gaia aztertu beharrean gaude. Nik zaila ikusten dut gai honetan akordio batera iristea, ez baitirudi EH Bilduko kideak sistema aldatzearen alde daudenik. Pena handia emango lidake, baina akordio batera iristeko gai ez bagara, galdeketa egin beharko genuke.

Larreako parkea estaltzeko gailendu zen proiektua egingarria ez dela azaldu duzue, garestiegia dela. Zein asmo duzue gai horren aurrean?

Parkea estaltzeko 50.000 euro zeuden aurreikusita eta estalkiak soilik kostu hori du. Baina parkea estaltzeko urbanizazio lana ere egin beharra dago, besteak beste, sarbideak egokitzeko. Urbanizazioa eta estalkia kontuan hartuta, 200.000 euroko gastua du proiektu osoak eta ez dago diru partidarik horretara bideratuta. Automatikoki, beraz, ezin da proiektu hori martxan jarri, bideratuta dagoena baino askoz ere diru kopuru handiagoa eskatzen duelako.

Villabonak parke estalia behar duela argi dugu, baina orain lantzen ari garen aurrekontuetan lan horiek gauzatzeko partida bideratu beharko dugu. Bide batez, aukerak aztertu nahi ditugu, zer edo zer merkeagoa eta kalitate onekoa egin daitekeela uste baitugu. Hurrengo urtean jarri nahiko genuke abian egitasmoa. Herritarrek Larreako parkea estaltzea aukeratu zuten eta horretan ez dugu arazorik; huraxe estaliko litzateke. Esandakoa, ahal bada proiektu merkeagoa aurkitzen saiatuko gara, baina lehentasunezkoa da guretzat ere parkea estaltzea.

Ezer aurreraterik bai abian diren herri baratzeeen inguruan?

Datorren urtean martxan jartzeko moduan izango direla diote teknikariek. Berrogei baratze inguru izango dira, Amasara igotzeko errepidearen ondoko

sailetan kokatuta. Arauak eta baldintzak lantzen ari dira teknikariak eta datu horiek zehaztutakoan egingo zaie deialdia herritarrei.

Obren sailean, besteak beste, Oria ibaiaren zabaltzea eta futbot zelaiaren berrikuntza-ren bigarren fasea aipa daitezke. Zer esango zenuke lan horien inguruan?

Ibaiaren bideratzea funtsezko lana da, tarteka ura kanpora ateratzen denez, herritarren segurtasuna ziurtatu behar baita. Aurreko legealdiak bideratuta utzi zuen proiektua eta gu, lanak ondo gauzatzen ari direla ziurtatu nahian, arretaz gabiltza. Herritarrentzako segurtasuna den guztia garrantzitsua da. Izan ere, Villabona uholde arrisku altua duen gune bezala izendatuta dago. Kategoria hori kentzeko egin daitekeen guztia, beraz, ongi etorria izango da.

Bestalde, aurrez lehenengo fasea egin eta gero, martxan da orain Arratzaingo futbol zelaiaren berrikuntza-ren bigarren fasea. Lehenengo fasearen atzetik, noski, bigarrenak naturalki etorri behar du. Gazte asko biltzen da futbol zelaiaren inguruan eta ahalik eta lekurik erosoena izatea beharrezkoa da. Futbol zelaiaren inguruan, Arratzaingo eskolaren 3. eraikina altxatuko dute epe laburrean.

Beste ekimen edo asmorik aipatu nahi?

Hezkuntza alorrean, batxillergoa ezarri nahiko genuke herrian bertan. Gure lehentasunen artean daukagu asmo hori, baina zaila da; mapak eginak daude eta hezkuntza sailak haiek jarraitzeko joera duelako. Gure ustez, ordea, herritar gazteek herrian bertan 18 urtera arte ikasi ahal izatea oso eroso litzateke, 16 urterekin beste herriren batera joan beharrean. Herriko gazteentzat bezala inguruko herrietako gazteentzat ere proiektu erakargarria litzateke. Baita herriarentzat ere, gazte asko etorriko bailitzateke inguruko herri txikietatik.

Ekimen gehiago ere badugu esku artean, baina guztiz lotu arte nahiago dut haien aipamenik ez egin.

Herritarrei mezurik luzatu nahi?


Eskerrak eman nahi dizkiet orain arte izandako jarreragatik. Oso kontentu nago jendeak erakutsi didan gertutasunarekin, eta horri eustea da nire helburua.

Zaborren gaia dela eta pazientzia pixka bat eskatuko nieke eta zaborrontziak behar den garaian atera eta ondo zintzilikatuta utz ditzatela. Esan bezala, gauzak ondo egin nahi ditugu eta bere denbora behar da horretarako.

Giro onean ari gara oposizioko kideekin lanean eta asko laguntzen du horrek egunerokotasunean.

“Denon arteko akordioa lortu eta zabor bilketa sistema egokia aukeratu nahi nuke”

“Hezkuntza alorrean, batxillergoa ezarri nahiko genuke herrian bertan”



**LEIZARAN
INSTITUTUA**

Plazaola, 23

20140 Andoain

Tel.: 943 300 078

Faxa: 943 300 578

012740aa@hezkuntza.net

www.leizaran.net

- **DBH: D eredu**
- **BATXILERGOAK:**
Zientifikoa, Teknologikoa,
Humanistikoa,
A eta D eredu
- **GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOAK:**
Gizarte integrazioa
A eta D eredu



Aiako San Pedro auzoan jaio zen Manuel Iruretagoiena, 1981ean ezkondu geroztik Zizurkilen bizi dena. Lehorrekia izanagatik, gazte-gaztetxotatik itsasoari lotuta bizitu da.

“Zimarroiak banaka harrapatzen genituen kainaberarekin”

“Atunetan genbiltzanean askotan jarraitzen genien baleei, azpian eramaten baititu atunak askotan”

Itsasoko gizona. Orain bost urte jubilatu artean, arrantzalea izan da Manuel. Eta nola zaletu zen? Bada, “eskola bukatu genuen garaian estudiantzeko gogorik ez eta eskabexeran hasi ginen lanean. Denboraldi hartan, lagun zaharragoak itsasora joaten ziren eta ‘ni ere gustura joango nindukek ba’ esaten nuen nirekiko”. Koinatuak eta hainbat lagunek Orioko Gure Gogoa baporea hartu eta txalupa-mutil falta zebiltzala jakin zuenean hantxe abiatu zen Manuel, 15 urterekin lehenengoz itsasora. “Lehorrean pintxeak tailerra garbitu edo enkarguak egiten dituen moduan, antzeko lanak egiten nituen nik lehen urteetan baporean. Orduan 40 urte bertan egingo nituela esan izan balidate, ez nukeen sinestuko”, azaldu du. 1969an hasi eta 1990 urtera bitarte koinatuarekin batera ibili zen Gure Gogoan, gero Getariako Santana Berria baporerak igaro eta hantxe aritu zen lanean jubilatu arte. Santana Berria Getariako baporerik onena dela gaineratu du, “Oraindik ere bai. Arrantzaleena, arrainik gehien harrapatzen duena”.

ARRANTZAN, ARTISAU ERAN

Baxurako arrantzan aritu izan da beti Manuel, artisau eran, sare, kainabera eta bestelako erremintekin eskuz lanean, “banaka-banaka harrapatzen genituen kainaberarekin zimarroak, tiki-taka, tiki-taka, segi eta segi; sarearekin, berriz, antxoa, sardina nahiz berdelak, bakoitza bere denboraldian”. Getaritik abiatuta, Burdeos aldera jotzen zuten lehen antxoaren bila eta haien norabidearen atzetik jarraitzen zuten “egunetikegunera kanporago, desagertzen ziren arte”. Gertuko nahiz urrunagoko itsasoak ezagutu zituen Manuelek. Esaterako, Gure Gogoa zahararekin, udazkenean Kanarietara jotzen zuten Bermeotarrak baporerarekin batera. “Irlen jira horretan eta handik behera, Marokoko kostatik behera ere ibiltzen ginen arrantzan. Bi bider ailegatu nintzen ni Dakarrarera. 1970-73 bitartean, lau urtetan izan ginen han eta 74an hemen kostera ona zenez, bertan geratu ginen. Urte hartan Bermeotarrak atunetara joandakoan desku-britu zuten Azores, oraindik ez baitzen ezagutzen.

Zimarroia, hegalaburra eta hegaluzea

Itsasoa gertutik ezagutzen ez duenarentzat ez da hain erraza hegalaburra eta hegaluzea bereiztea. Manuelek begiratu hutsarekin nahikoa du. Atunari euskaraz hegaluzea esan ohi zaion arren, izen hori okerra dela argitu du. “Atuna hegalaburra da euskaraz, haragi gorrista duena. Guk zimarroia esaten diogu. Bonitoa, berriz, hegaluzea da, haragi zuri-zurikoa”.



Angulatan neguan

Itsasotik etorri eta negua iristen zenean, angulak harrapatzen ibili ohi izan da Manuel Oriotik Aginaga tarteko errekan. “Orain ez dago joaterik, baina 80ko hamarkadan izugarri pila jaso genuen. 1981 urtean motorra erosi eta 15 bat urtez ibili nintzen angulatan. Orduan angula eta izkira asko izaten zen eta izkira Donostiako arraindegia batean saltzen genuen. Angularik ez. Orduan ez zuen inork nahi izaten eta ez zen apenas saltzen”. Motorrekin hasterako nazkatu egin zen Manuel angulak jateaz, “angulak baino nahiago nuen beste edozer gauza. Saltzen ez zirenez, oso maiz jaten baikenituen. Orain, ordea, ederragoa da angula”. Angila egiteko Txina eta Japoniara eramaten dituzte egun angulak, Algecirasiko atuntokietan harrapatzen dituzten zimarro handiak bezala.





Argazkiak: © Patxi Uranga

2009 urtean, Santana Berri baporearen baitan lanean.

Izugarri pila harrapatu zuten. Hurrengo urteetan gu ere joan ginen, baina neurriak gogortu zituztenean, joan gabe ere egon ginen urte batzuetan. Aspaldiko urteetan gertuago geratzen ginen”, azaldu du.

Han eta hemen, pila eta pilaka bildu izan zuten zimarroia edo atuna, “35.000 kilo ere harrapatu izan genuen garai batean. Hori bai, geratu ere egin gabe egiten genuen lan. Itsasoan ez dago geratzerik: aurrena arrantza eta haren atzetik jan eta lo”.

BELAUNALDIZ BELAUNALDI

Gaur egungo itsasontziak, lehengokoen aldean oso ondo egokituta daudela azaldu du, topera prestatuta daudela eta askoz ere erosogoa dela hauetan lan egitea, “lana egin behar da, baina egokiago. Esaterako, sareak eskuz bildu beharrean, makinak berak biltzen ditu”. Egunerokotasunean ere bada alderik, besteak beste, egunero dutxatzeko aukera. “Lehen kontuz inork ur gezarekin aurpegia garbitzen ikusi... Ni hasi nintzen urteetan ur gezarentzat 2000-3000 litroko tankea izaten genuen eta ezin zen nolanahi iturria ireki. Ur hura sukaldariak eta makinistak behar izaten zuten”. Astelehenetik larunbatera, astea itsasoan igarotzen zuen Manuelek hasieran. Astelehenetik ostiralera gero, astebururako etxera erretiratu. Itsasoan ibiltzea baino gogorrago egiten zitzaion aste osoan zehar etxekoez ezertxo ere ez jakitea; arrantzale lanetan hasi zen garaian ez baitzen mugikorrik. “Behin mugikorrek hasi zirenean, itsasoan koberturarik ez bagenuen ere, lehorrean etxekoei deitzeko aukera izaten genuen”, adierazi du. Arrantzalearen lana gogorra da eta, egun, bertako gazte askok ez du langintza hori hartu nahi. Belaunaldiz belaunaldi, aitarengandik semearengana edo osabarengandik bilobarengana igarotzen zen lehen, baina patroia edo makinistak jubilatzerakoan, jarraipenik gabe geratzen dira asko orain. “Kanpoko arrantzale asko etorri da gure kostalderra, Dakar aldean ibilitakoak asko. Santana Berri baporea, betiko moduan, bertako arrantzaleekin mantentzen da oraindik ere”.

ITSASOA, ETXE BLOKEA BAINO ALTUAGO

Hemen inguruko kostaldetik kanpokoetara ateratakoan, itsaso ezberdinekin egiten zuten topo. Irlanda aldera maiz joaten ziren atunetara eta irailetik aurrera, inguru haietan itsasoak ikaragarri jotzen zuela aitortu du, “arraina baldin bada, ordea, joan egin behar da. Eguraldi onarekin hobeto ibiltzen da, baina txarrerako ere jarrita egoten ginen”. Ka-

narietatik etxera zetozten txanda batean, ezusteko latza izan zuten 1972an. Itsaso txarra egokitu eta etxera ailegatuko ez zela pentsatzerainokoa, “bueltan gentozen motel, geldo. Parean itsasoa etxe blokea baino altuago ikusten genuen. Baporea, berriz, geldi geldirik, moztuz-moztuz. Gaua halaxe pasa genuen eta ‘etxera ailegatzek banaiz, ez naiz gehiago etorriko’ esan nuen. Gero ahaztu egiten da, ordea; gau gogoragorik etorri ezin daitekeela pentsatuta. Gau hartan Bilboko superportuaren kanpoko horma lehertu egin zuten olatuek; bada, guk gau guztia itsasoan igaro genuen”, gogoratu du. Gainerakoan zortedun sentitzen da, itsasoan igarotako urte luzeetan sekula ez duelako istripurik izan eta bajarik hartu.

BALE ARTEAN

Inoiz arrantzatu zuen arrainik handi edo bitxienaz galdetuta, Marokoko kostan harrapatutako 300 kiloko zimarroia aipatu du. “Sekulakoa zen. Ezin zen inondik ere harrapatu, baina azkenean lortu genuen geureganatzea”. Sarritan ibili izan zen bale artean, baleak baporearen ondo-ondoan zituztela. “Balea ez da arrisksua, ez du kalterik egiten. Gehiegi gerturatu gero, ezkutatu egiten da. Atunetan genbiltzanean askotan jarraitzen genien baleei, azpian eramaten baititu atunak askotan”. Baleen inguruan pasarte polit ugari du Manuelek, hementxe bertan. Kantauri itsasoan edo kanpoko uretan ikusi izan ditu. “Behin itsasoa izkira gorritz beteta zegoela, bi bale genituen baporearen alde banatan eta gu baino lehen iritsi ziren haiengana. Bat-batean ahoa zabal-zabal egin eta draust!, han ez zen izkira gorri gehiagorik agertu. Nola zabaldu ahoa, biak bate-batera, batak besteari itxaronda bezala. Akabo! Izkira denak jan zituzten... Hura zen ikuskizun polita! Bale handia eta umea ondoan topatu genituen beste behin. Itsasoa odolez gorri-gorri. Itxuraz umea egin berri zegoen ama”.

ITSASOA IKUSTEAREN BEHARRA

Duela bost urte jublatu zen Manuel eta itsasora beharrean hondartzara joaten da egun. “Hala ere itsasoa ikusi egin behar izaten dut eta izugarri gogoko dut Donostia aldera joan eta Paseo Berritik barrena ibiltzea. Ez dut arrantzarik egiten, baina gatzetxotan eskabetxeran ikasi bezala, etxekoentzat nahiz lagunentzat, potetan sartzen ditut urte gutzirako antxoa eta hegaluzea”, aipatu du. Gainerakoan, ehizerako afizioa ere badu eta belaunek laguntzen dioten bitartean, txakurrarekin batera mendira joaten jarraitu nahi du.

“Olatuek Bilboko superportuaren kanpoko horma lehertu zutenean, guk gau guztia itsasoan igaro genuen”

Txapapotea kostan

2002ko azaroan Prestige petrolio-ontzia Galiziako kostaldean hondoratu zenean, nahikoa lan egin zuten arrantzaleek txapapotea jasotzen. Langintza hartan aritu zen Manuel bera ere, eta eguraldi onarekin, arrain bila abiatu beharrean txapapotea jasotzera ateratzen ziren itsasora egunero. “Eguraldi txarra zela eta egun pare batean itsasora ateratzen ez baginen, kostaraino iristen zen txapapotea. Itsasotik jaso izan ez bagenu, arrokatzen itsatsita geratuko zen eta akabo orduan hemengo lanperna eta lapak”. Txapapotea ateratzea ikaragarriko lana izan zela gogoratzen du eta barruan hondarra zuten ehundaka edukiontzi bete zituztela produktu beltz itsaskor hartaz, kamioiak kargatu ondoren, fintzera eramaten zutena. “Makina tonelkada bildu zen eta eskerrak! Galiziako kostan bat-batean harrapatu zituen herritarrak, baina gure kostara iristerako hura jasotzeko prestatu egin zen jendea”.





Marimar Txibite eta Mila Eizagirre, Asteasuko igerilekuan.

Agur festa jendetsua

Ona izan den udari amaiera hobe emateko, igerilekuan agur festa antolatu zuten irailaren 12an. Jende ugari gerturatu zen festara eta tabernariak pozarren agertu dira, udan zehar igerilekuan ibilitako lagunak bildu zirelako. Pintxoak eta gozokiak banatu zizkieten bertaratutakoiei eta, gainera, Amasa-Villabonako Anakruxa taldeak girotu zuen taberna: "Abesti ezagunak jo zituztenez, giro ederrajarri zuten. Oso gustura geratu gara".

“Errepikatzeko moduko esperientzia izan da”

Oporretarako garaia iritsi zaie Mila Eizagirre eta Marimar Txibiteri. Asteasuko igerilekuko tabernan lanean aritu dira uda osoan zehar.

Lanean, baina oso gustura. Esperientzia bikaina izan dela eta eskerrak ematea besterik ez zaiela geratzen adierazi dute langileek. Igerilekuko tabernaren ardura hartu zuten uda aurretik, eta oso ondo joan zaiela azpimarratu dute: “Izugarrizko bizipena izan da, zentzu guztietan. Ekonomikoki ondo joan zaigu eta ederki moldatu gara bezeroekin, Udalarekin, herritarrekin...”.

Esperientzia “bikaina” izan dela azaldu dute billabonatarrek eta ez dute kexatzeko aitzakiarik, eguraldia ere lagun izan baitute uda osoan zehar. Oso eguraldi ona egin du eta horrek tabernako jardunean lagundu egin die. “Igerilekua beteta egon da eta, ondorioz, taberna ere bai”, adierazi du Milak.

Datorren urtera begira zerbait

“Eskertzea besterik ez zaigu geratzen. Mila esker Udalari, igerilekura etorri direnei, herritarrei, hornitzaileei... Denei”

aldatuko luketen galdetuta, zer erantzun jakin gabe geratu dira. Guztia ezinhobeia izan dela esan dute behin eta berriro. Instalazioei dagokienez, ez lukete aldaketarik egingo. Sukaldea “ondo dago” behar izan dutenerako eta Udalak jarritako eguzki-oihalak haizetik ere babestu ditu. “Gainera, oiha oso politak jarri dizkigute. Herriko

argazkiak ageri dira eta herritarrek horiek ikustera gerturatu dira”.

ASTEASUARRAK TERRAZEN BILA

Uda giroaz gozatzeko herritarrek terraza eskertzen dutela ikusi dute Mila eta Marimarrek. Jendea terraza gozoz egonda eta etxe berriak egiten ari direla jakinda, herrian beste terrazaren bat beharko dela uste dute. Taberna irekita eduki dute iraileko azken astebururaino eta igerilekua itxi ostean ere herritarrek gerturatu egin direla ikusi dute. “Udaran aurpegi berak ikusi ditugu, beraz, gustura etortzen diren seinalea da”, adierazi dute.

LEHEN ALDI BIKAINA

Tabernari bezala lan egin izan duten arren, aurtun lehen aldiz

hartu dute Asteasuko igerilekuko taberna irekitzeko ardura. “Nik pertsonalki ez nuen igerilekua eza-gutzen, ez nekien aurreko urteetan tabernak nola funtzionatu zuen... Jakin gabe hasi nintzen”, aitortu du Marimarrek. Langabezia zegoenez, aukera ona iruditu zitzaion eta bi aldiz pentsatu gabe, Milarekin batera lanean hasi zen.

Hala eta guztiz ere, igerileku bateko tabernan lan egitea oso ezberdina dela adierazi dute. Marimarrek, adibidez, Adarra mendiaren magalean lan egiten zuen: “Taberna honek ez du zerikusirik lehengoarekin; ez janak, ez ordutegiak... Oso ezberdina da. Hau hobe iruditu zait, bizitzako beste une batean nagoelako orain”. Lehen aldia izan bada ere, datorren udan errepikatzeko gogoz geratu dira.

ESKER HITZAK HERRITARREI

Lehenik eta behin, herritarrei esker eman nahi dizkiete, portaera ona izan dutelako eta elkarrekin gustura ibili direlako. Ez zuten horrenbeste jende gerturatzea espero eta erdiarekin ere konformatuko liratekeela adierazi dute. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiete Udalari eta hornitzaileei, eskaini dieten laguntzagatik: “Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen”. Azkenik, datorren urtean ere bertan egotea espero dutela azaldu dute.

XiXORi
BELARDENDA

Dietetika zentroa
Kontsulta naturista

Ondarreta, 9 - ANDOAIN
☎ 943 590 199

Txitibar, 4 - ANDOAIN
☎ 943 245 023

Txikun ikastaroa berriro martxan Larraulen

Astearte goizetan (09:30-11:30), Txikuna (Qi Gong) praktikatzeko aukera dute larrauldarrak. Onura handiak ekartzen dituen teknika txinatarra da.

Meditazioan sakonduz

Txikun teknikaren oinarritzko maila landu zuten iaz. Aurten ere lehenengo mailan jarraituko dutenarren, meditazioan gehiago sakonduko dute. Norbera bere buruarekin egoten ikasiko dute, antsietate eta beldurrak alde batera utziz. Hala, ariketa gehigarriak egingo dituzte ikastaroan zehar.



Lo hartzeko zailtasunak, bizkarreko mina, antsietatea, estresa edota giharrak gogortuta dituztenei zuzendutako ikastaroa jarri dute abian, bigarren, Larraulen. Txinako medikuntza tradizionaletik datorren terapia da, gorputz fisikoa eta energetikoa lantzen dituen. Arnasketaren bidez gorputzaren indarra mugitu eta oreka lortzean datza. “Gorputza orekatzen da; ez kanpotik soilik, baita barrutik ere: organoak, sistema nerbioa... Honela, norberaren burua zentratzen, arnasketa zabaltzen eta naturaren indarra gureganatzen ikasten da”, azaldu du irakasle lanetan ibiliko den Jone Arrospidek.

Ariketa terapeutikoak egiten dituzte asteen behineko saioetan; luzatze ariketak eta erlaxazioa lantzekoak, besteak beste. Dena den, oinarritzkoena arnasketa lantzea denez, ariketa guztietan kontzientzia mugimenduekin bateratzen dute. Hau da, mugimendua pentsamenduekin lotuta, gorputza askatzea eta norberarengan konfiantza hartzea lortzen dute.

“Ariketen bidez, inkontzienteki gorputza askatu egiten da”

Teoria askorentzat arraroa izan daitekeen arren, praktikan erraz lortzen dela aitortu dute iazko ikastaroko parte hartzaileek: “Jonak erakusten dizkigun ariketen bidez, inkontzienteki gorputza askatu egiten da, eta bat-batean, makinaria bat martxan jarri eta funtzionatu egiten du: arnasa ondo hartzen duzu, lasaitu egiten zara...”, dio Aitziber Mendiolak.

EGUNEROKOTASU-NERAKO BALIAGARRI

Mirari baten gisan hitz egiten dute ikastaroan lortutakoaz, eta pozik daude gorputza orekatzea lortu dutelako. Askok, gainera, ikastarotik kanpo erabiltzen dutela azpimarratu dute, egunerokotasunean ere oso lagungarria zaielako. Jaione Ucinak noiz edo noiz etxean praktikatu izan du, eta gauetan

izaten zituen lo arazoak Txikuni esker konpondu dituela azaldu du: “Noizbait lo hartu ezinik egon banaiz, ariketaren bat egin eta lo hartzeko balio izan dit”. Horrez gain, alabari ere erakusten saiatu da, “oso ondo” etortzen zaiolako momentu jakin batzuetan.

Eguneroko bizitzan erabilgarria dela uste dute larrauldarrak. Orokorrean, gorputza libreago eta energia gehiagorekin sentitzen dute, lehen egiten zituzten ekintza berak “esfortzu gutxiagorekin” egiten dituztelako. “Edozein mugimendu errazago egiten da, eta loa sakonago egitez denez, energia gehiagorekin eta guztiz deskantsatuta esnatzen zara”, adierazi du Aitziberrek. Rafaren ustetan, gainera, ariketek ez diete denei berdin eragiten eta bakoitzak bere onurarako erabiltzen ditu. Horrenbestez, egoera pertsonal bakoitzerako lagungarriak direla dio: “Nire kasuan, lortu dudana elastikotasuna estimatzen dut. Izan ere, zapatak arazorik gabe lotzea lortu dut. Tontakeria dirudi, baina nire adinean ohikoa izan daiteke hori”.

GUZTIAK GONBIDATUTA

Gazte edo heldu; euskaldun ala erdal-hiztun; guztiak ikastaroan parte hartzera animatu dituzte. Emaitzak “oso epe laburrean” lortzen direnez, Txikunek ekar ditzakeen onurez gozatzera gonbidatu dituzte gainontzeko larrauldarrak. Edozein adineko jendea eta edozein egoeratan dagoena joan daiteke: “Elbarri egonda ere, aulkian eserita ariketak egiteko aukera bada. Azken finean, gure kontzientziak mugitzen du gure bizitzako indarra eta horrek sendatzen gaitu”, jakinarazi du irakasleak.

Bestalde, euskara ulertzen ez duten horientzat ere irekita dagoela nabarmendu dute. Gehienbat euskaraz egiten duten arren, elkar ulertzeko arazorik ez dela izaten diote. Rafak dioenez, berak ez du ariketak ulertzeko arazorik izaten eta, gainera, euskaraz apur bat ikasteko ere balio dio ikastaroak.



Aitziber Mendiola, Jaione Ucin eta Rafa Sanchez, Jone Arrospide (hirugarren) irakaslearekin batera.

Aiurri aldizkariaren 457 zenbakian, Eusko Jaurlaritzak irailaren 4an aurkeztu zuen Memorien Erretratuak ekimenaren berri argitaratu zen.

Sufrimenduak arintzeko ahaleaginean lanean

“Egia guztiak jakin behar dira herri bezala aurrera egiteko; memoria eta errelato osoa, aurrera egiteko”

Memoria bateratzailea

Esti Amenabarrok, historia eta memoria sekuentziak edota nahierara egin edo konta ezin daitekeelauste du. “Aldeanitzetako biolentzia gertaerak izan dira hemen azken 79 urteetan gutxienez. Lehenago ere bai. Villabonari buruz, Bake eta Bizikidetzatza saileko azterketan aipatzen diren lau pertsonak biolentziaren biktimak dira, ETaren biktimak. Baina dokumentu horretan ez dira ageri estatuaren gehiegikeriaz hildakoak. Mikel Zalakain, esaterako, espetxe batean hil zen”, azaldu du. Memoriaren ikerketa bateratzailea aldarrikatzen dute, inklusiboa. “Memoria egiten ari gara, gertatu den guztiaren gainean errelato bat osatzeko eta herri hau bake eskenatoki batera eramateko. Biktima denei zor zaie aitortza eta erreparazioa. Kolonbian ederki ikusten ari garen moduan ezin daiteke memoria bakar batean oinarrituta aritu”.

Hain zuzen ere, 1960tik 2010era bitartean terrorismoak edo beste edozein indarkeriak eragindako biktimen zerrenda osatuz, Eusko Jaurlaritzako Bakea eta Bizikidetzatza sailak orain artean egindako azterketaren emaitza. Egun herriz herri aztertzen ari diren azterketa horretan Beterri-Aiztondo eskualdeari lotuta aipatzen den biktimen zerrenda eman zen ezagutzera. Zerrenda horren hariari tira eginez, Amasa-Villabonako ‘1931-2010 urteen arteko memoriaren mapa eraikitzen’ ari diren kideek, gatazkaren ondorioak askoz ere pertsona gehiagok jasan dituztela ziurtatzeko moduan daudela jakinarazi dute, “egia guztiak jakin behar baitira herri bezala aurrera egiteko; memoria eta errelato osoa, aurrera egiteko”. Amasa-Villabonako memoriaren mapa eraikitzen ari den kide horietako bat Esti Amenabarro da eta “herri honetan gertatu denaren inguruan kontakizuna alde batekoa bakarrik egiten badugu, nekez lagunduko diogu bakeari”, aitortu du. “Amasa Villabonan, Eusko Jaurlaritzaren txostenean agertzen diren lau pertsona horien sufrimenduari, beste hainbatena ere erantsi beharra dago ezinbestean, gatazka konpondu nahi badugu”, esatearekin batera, arrazoi politikoak tarteko, Villabonak biktimen zerrenda luzea duela nabarmendu du: 29 fusilatu errepublikarren eta abertzaleen artean, 21 hildako frankisten aldean, 430 pertsonatik gora espetxeratuak eta arduratutako politikoak pean zigortuak. 1960-2011ra bitartean, berriz, 143 pertsona atxilotu eta 89 tortura salaketarekin batera, herrian beste hiru heriotz izan zirela zehaztu du:

Migel Zalakain Odriozola (Villabona 1932-Martutene 1990)

1990eko azaroaren 30eko gauean Martuteneko espetxean hil zen bihotzekoak jota, uztailearen 20an izandako miokardio infartu akutua behar bezala ez zaintzearen ondorioz. Espetxeko arduradunek, haien erantzukizuna ez zela ardudiatu zuten. Senideek eta abokatuak, hura zaintzearen ardura zuten lau medikuak auzitara eraman zituzten, baina kasua artxibatu egin zen.

Errebotepilotariezagunagazte denboran, Donostiako Erreboteko mundialetan parte hartu zuen 1952an. ETA-

ko militante izateagatik espetxeratu zuten. Zortzi urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Pilar emaztea, Juan Antonio eta Iñaki semeak ere atxilotu zituzten berekin batera.

Remi Ayestaran Olano (Villabona 1981-Villabona 2009)

Ezker abertzaleko militantea. ANVko ordezkari bezala, Udal ordezkaria zen eta bere heriotzaren unean alkateorde zereginetan ari zen.

2009eko uztailearen 31n hil zen egun Remi Ayestaran ibilbidea bezala ezagutzen den pasealekuan. Villabonan Santio jaietan, euskal presoan alde deituriko kontzentrazio bat tarteko, ertzain kopuru handia sartu zen Villabonako jai gunera. Aipatu kontzentrazioa bertan behera geratu zen, baina Ertzaintzak bere agerpena egin zuen eta giroa gaiztotu. Remik bere alkateorde karguan giroa baretu eta liskarrak ekiditeko ahaleaginean ari zela, bertan zeuden ertzainen aldetik jarrera bortitza jasan behar izan zuen, izugarriko presioa sentiarazteraino. Nahigabea sentitu eta lurrera erori zen. Anbulantziak eta bertan ziren hainbat erizainek ezin izan zuten deus egin. Hil egin zen. Gertakari tragiko hark zirrara sozial eta politiko izugarria sortu zuen Amasa-Villabonan.

Mikel Zalakain Esain (Villabona 1961-Korsika 2010)

Korsikan hil zen, minbiziaren ondorioz; ihesi zegoen Villabonatik, bere militantzia medio, torturatzeko arriskua zela eta. Bere aita –Migel Zalakain– atxilotu zutenean, 1986an ihes egin zuen Villabonatik. Ez zen gehiago itzuli.

Mikelek bere 49 urtetan, bortizkeria mota asko jasan behar izan zuen. 1986an bere familia osoarekin batera atxilotu zuten; 1988an bere emaztearekin batera, Frantziar Estatuko hainbat espetxe desberdin ezagutu zuen. 1992. urtean aske utzi zuten baina konfinatua izan zen, Parisen bizitzera behartua. 2000. urtean, bere aurka hainbat akusazio zeudela ikusita, –tartean Soares Gamboa ezagunak bere aurka eginikoak–, konfinamendua hautsi eta Korsikara ihes egin zuen. Korsikan iheslari politiko gisa bizi zuen 2010 urtera arte, emaztearekin. Seme bat zuen.



STOP
LIBURUDENDA

Agustin Leitza, 27 - 943 591 603 - ANDOAIN



Patxine jatetxea

GURE BEREZITASUNA:


Euskal sukaldaritza eta etxeko postreak

Errementari, 1 - ASTEASU - Tel.: 943 69 10 25



TOKIAN TOKIKO, GARAIA GARAIAKO

JOXE ARRASTOA PERRETXIKOZALEA
AMASA-VILLABONA



Onddoak, udazkeneko errege

Udazken garai betean, perretxiko estimatuak izan ditu hizpide Joxe Arrastoa perretxikozaleak.

Nolatan zaletu zinen perretxi-koetara?

Jateko baino, biltzeko afizio handiagoa izan dut beti. Dozena urterekin hasiko nintzen perretxikoak biltzen, mendira ehizera joaten hasi nintzenean. Gero, 'perretxikoak ba omen dittuk' entzuten nuenean perretxiko bila abiatzen nintzen. Egun batzuk oso onak izaten ziren, baina hurrena, ez nuen bakarria topatzen.

Zein ingurutara jo izan duzu batik bat?

Nafarroan edota hemen inguruan ibiltzen nintzen gehien: Amasa, Zizurkil eta Aduna aldean. Nafarroan asko bildu izan nuen, han hemen baino gehiago ateratzen baita. Perretxikoari txilar pixkat bai, baino generalean lur garbia gustatzen zaio. Lehen hemen inguruan gaur baino gehiago ateratzen zen, baso gehiago zegoelako.

Ilargiak ba al du eraginik?

Esaera

bada perretxiko bila ilbeheran joan behar dela, baina nik ez diot fede askorik horri. Batzuetan ilargiaren zain egon eta batere ez da ateratzen eta beste batean, inork uste ez duen garaian sekulako pila.

Zein perretxikoduzugogokoen?

Batzuek gibelurdina finagoa dela diote, baina niri onddoa gustatzen zait gehien. Hark egiten du biltzerakoan ere grazirik gehien. Generalean, mendira joaten denak onddoa nahi izaten du. Orainxe hasi da onddoaren garai bete-betea.

Gomendiorik? Ezagutzen ez duenak kontu handia behar du perretxikoarekin eta dakienak ere bistarekin ibili behar du,


ez baita zaila onak direlakoan txarrak hartzea. Badira bospasei seguru: onddoa, gibelurdina, xixoria, kuletroa... baina argi ibili behar da.




10

PIL-PILEAN

ITZIAR IBARBIA ETA RICHARD FIGUEIDIDO
UZTARTZA JATETXEA (ADUNA)



Hiru urte daramatzate Richard eta Itziarrek Uztartzako sukaldetan. Denetarik eskaintza dute eta gaurkoan, asteburuko menuan tartekatuta berri duten plateraren berri azaldu dute.



Porru eta ganba pastela

Osagaiak (12 anoa)

- Litro 1 esnegain
- 8 arrautz
- 300 gr. porru
- 24 ganba
- Gatza
- Oliba olio

Prestaketa:

Porrua ondo txikitu ondoren oliotan erregosi, batetik. Bestalde, hamabi flan-ontzi hartu eta bakoitzean bina ganba sartu. Beste ontzi batean, zortzi arrautzak esnegainarekin irabiatu, gatza bota eta aurrez erregositako porrua nahasi. Nahasketa hori guztia hamabi flan-ontzitan banatu eta maria bainuan labera sartu, labea 150 gradutan dagoela, 35 minutuz. Sukaldariek arrain pastela hotza zerbitzatzea egokiagoa dela uste duten bezala, porru pastelaren kasuan epela zerbitzatzea gomendatzen dute, gusturago jaten delako. Lagungarri gisa, porru pastelari marisko krema jar dakiokela ere adierazi dute.

Eraz egiten den platera dela diote eta oso goxoa dela. Uztartzan behintzat oso harrera ona du, bezeroei asko gustatu zaie asteburuko menuaren baitan eskaintzen hasi diren aukera berri hau.

Motorraren gida

AZKAIN

Motoak
[ANDOAIN]
Ubilluts. 56 Pol. 12. 943 591 413

KARRIKA

Auto konponketa
[ANDOAIN]
Ubilluts. 56 Pol. 10. 943 300 214

URPA

Autobusak
[ANDOAIN]
666 489 010 (24 ordu)
943 305 050 (Garajea)

Bengoetxea autoeskola



Ikastaro trinkoa
Lortu teorikoa bost egunetan

Andoain 943 594 406
Villabona 943 690 057


Mendi

autoeskola

Ikastaro trinkoa
Lortu teorikoa bost egunetan

Agustin Leiza, 11 - 20140 Andoain
Faxa: 943 300 604


IBAI-ONDO GARBIBIKETAK



943
692
256

Industrialdea, 16 - 20170 Irura

ZABALAGA TAILERRA



AUTOMOBILAREN
MEKANIKA OROKORRA
Tel.: 943 300 169
Ama Kandida
DENAC industrialdea,
203 Pabiloia. 20140 ANDOAIN

TRANS-ERNIO- GIPUZKOA




Tel.: 943 69 60 61 Faxa: 943 69 61 79
Urtaki industrialdea. 40. pabiloia
20150 ADUNA (Gipuzkoa)

Zorionak sariaren irabazleei

456 zenbakian 'Andoaindarrak 400' ekimeneko bi produktu sorta zozketatu ziren. Poltsa, kamiseta, koaderno eta ekimeneko txapa bana biltzen zituen sorta bakoitzak. Hamabost lagunek hartu zuten parte zozketan eta, Maria Rosario Telletxea Intxausti

andoaindarra eta Amaia Zubeldia Altunabillabonatar harpidedunak izan ziren irabazleak. Zorionak bioi!

Datorren aldizkariarekin batera argitaratuko da hurrengo zozketaren eta sariaren berri. Ordura arte, zorte on!



Zorionak Pilar Garaiburu

AMASA-VILLABONA

Joan zen irailaren 24an, 101 urte bete zituen Villabonako Santiago egoitzan bizi den Pilar Garaiburuk. Alai eta gustura ospatu zuen urterrena billabonatarak, familiako kide eta adiskideekin batera txokolatea hartuz. Sasoian mantentzeko, eserita egon beharrean ibili egiten da. Hala esan zion behin medikuak eta zintzo egiten dio kasu gomendio hari. Janaria ere ederki erreparatzen du, arin eta neurrian janez. Kontuan hartzeko bi neurri emakume indartsu honen bidea jarraitu ahal izateko. Zorionak Pilar!

Aiurri Txiki



Marrazkiak, jolasak, asmakizunak... 3-8 urte bitarteko haurrei zuzenduriko **Aiurri txiki aldizkaria bueltan da.** Bi urteko isilunea hautsi eta bertan dira Pelloziri eta Maripurtzilen abenturak. Aiurriko harpidedunen artean banatuko da, hamaboskariarekin batera. Gogotsu itzuli dira, abenduan beste aldizkaritxo bat argitaratuko baita. Hori ere Aiurriko harpidedunek bakarrik jaso ahal izango dute.



Atxulondoko igogailua

ZIZURKIL

Zizurkilgo kultur etxeak igogailua izango du epe laburrean. Lanak bere amaierara iristen ari dira eta urrian zehar bukatzea aurreikusten dute Udaleko kideek. Etorkizunean, Zizurkilgo liburutegi berriaren proiektua gauzatzen denean, leku gehiago izango da kultur etxean eta gelei zein erabilerara eman adosteko asmotan dira arduradunak. Egun, bertan kokatzen dira, besteak beste, Atxulondoko taberna, Gaztezulo gaztelekua, liburutegia, ikastaro ezberdinetarako gelak edota erakusgela...



**TXERRIKIEN
BANATZAILE ETA
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA. Ama Kandida, z/g
307. Moduloa ANDOAIN. ☎ 943 592 923
www.ormaki.net



**Baserriko haragia
Urdaitegi berezia**

Bulandegi bidea, 1. ZIZURKIL
943 69 62 42



Herri antzerkia DVDra

ZIZURKIL

Maiatzaren 16an 100 zizukildar inguruk elkarlanean osatu zuten 'Bazen behin herri txiki bat' antzezlanaren aurkeztu zen Zizurkil goiko pilotalekuan. Iraitz Lizarragak zuzendutako lanak antzerkia, musika, dantza eta bertsoa uztartu zituen. Zizurkil beheko festetan, antzezlanaren pantaila handian proiektatu eta 300 herritar baino gehiago bildu zen aurkezpena ikustera. Aurrerantzean, nahi duen orok, ikuskizuna bere etxean goxo-goxo ikusteko aukera izango du, Zizurkilgo Udalak DVDa osatu baitu eta 3 euroren truke salgai baitago.



Aukera zabala azokan

ASTEASU

Irailaren 27an egun osoko festa izan zen Asteasun. Goizez azokako postu eta ganadu erakusketarekin batera, arroz-esne nahiz kalabaza lehiaketako sariak banatu zituzten eguerdian Udal ordezkariak, baita ganadu erakustaldikoak ere. Arroz-esne goxoen Olatz Mendizabalek aurkeztutakoa izan zen epaimahaiaren ustez. Kalabazarik handiena, berriz, Intxusa Goikoa baserriko Mikel Izagirrek ekarri zuen, 40 kilo pisatu zuena. Arratsaldean Euskal Herriko zaldi team penning western erakustaldiaz gozatzeko aukera ere izan zen. Argazkiak: aiurri.com.



Oinkariren urteurrena

AMASA-VILLABONA

Datorren azaroan, 40 urte beteko dira Oinkari dantza taldea sortu zela. Urteurrenaren harira, ekintzaz betetako egitarau zabala antolatu du dantza taldeak azaroaren amaierarako. Tartean, dantzari eta dantzari ohien emanaldia izango da azaroaren 20an Olaederra kiroldegian eta emanaldi hori prestatzen hasiak dira dantza taldea osatu duten lau belaunaldiak kideak. Irudian, bigarren belaunaldiako dantzariak gogotsu, Nafarroako dantzak entseatzen, Txerningo ikastolako ganbaran.



Erreka eta ibaiak dragatzen

ANDOAIN

Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak Leitzaran eta Oria ibaiak elkartzen diren gunea dragatzeko agindua eman du. Egunotan hasi dituzte ibaien ertzak garbitu eta onbideratzeko lanak. Udalarik jakinarazi diotenez, zereginak lau egunez luzatzea aurreikusi dute. Andoaingo Udalak, dena den, lan hauekin urrats txiki bat besterik ez dela aurreratu uste du. Adierazi duenez, Leitzaran eta Oria ibaiak dragatzearen beharra Andoaingo Udalen eta Andoaingo herritarren aspaldiko eskaera da.

Udazken-neguko | kolekzio berria

ORMENDI | KIROLAK

Kale Berria, 2 – 20140 ANDOAIN. Gipuzkoa – Tel./Faxa: 943 591 806



Jaiotzak

Eneritz Lasa Larrañaga
Amasa-Villabonan, urriaren 3an

Aratz Esnaola Goikoetxea
Amasa-Villabonan, irailaren 25ean

Marian Tapuc
Amasa-Villabonan, irailaren 17an

Heloene Ariztimuño Arranz
Andoainen, urriaren 2an

Oñatz Arruti Etxabe
Andoainen, irailaren 23an

Jared Berasaluze Amiano
Zizurkilen, urriaren 3an

Heriotzak

Isabel Crespo Montes
Andoainen, urriaren 5ean

Vicente Mayo Navarro
Andoainen, urriaren 5ean

Mari Tere Uranga Odrizola
Andoainen, urriaren 3an

Paulino Arruabarrena Arruti
Andoainen, urriaren 3an

Consuelo Vega Perrino
Andoainen, irailaren 28an

Isabel Fernandez Lete
Andoainen, irailaren 28an

Jesús Guerrero Caballo
Andoainen, irailaren 26an

Cristina García de Madinabeitia Moraza
Andoainen, irailaren 26an

Mikela Ansa Goenaga
Andoainen, irailaren 26an

Eduarne Arruti Unanue
Andoainen, irailaren 23an

Josefa Murgiondo Lasa
Andoainen, irailaren 21ean

Benigno Molano Clemente
Zizurkilen, irailaren 23an

Felix Iraola Galarbide
Zizurkilen, irailaren 15ean

Jose Luis Gonzalo Vicente
Zizurkilen, urriaren 4an

Irati Olazabal Arrastoa
Amasa-Villabonan, urriaren 2an

Jose Luis Aramendia Urrestarazu
Amasa-Villabonan, urriaren 1ean

Esteban Zubeldia Jauregi
Amasa-Villabonan, irailaren 25ean


ZORION AGURRAK GARAIZ BIDALI, URTEBETETZE EGUNA BAINO 10 EGUN LEHENAGO WHATSAPPEZ: 619 163 537



ZORIONAK

Irailen zuen urtebetetzea ospatu zenuten. Geroago bada ere, zorionak! Adunako eskolako lagunen partetik.


Aduna



ZORIONAK

Odei Elizegi gure surfistak, irailaren 28an 10 urte bete zituen. Zorionak! Zorte on olatuekin. Andoaingo lagunak.


Andoain



ZORIONAK

Gure Maddi txikiak 3 urte bete zituen irailaren 29an, eta etxekoekin ederki ospatuko dugu. Txokolatezko muxu goxoak, printzesi!


Andoain



ZORIONAK

Enekok irailaren 30ean 10 urte bete zituen. Segi hain jator eta irribarretsu. Etxekoekin partez milaka besarkada eta muxu potolo. Zorionak potto!


Andoain



ZORIONAK

Zorionak Beñat! Urriaren 13an, 13 urte beteko dituzu. Egun ederra igaro dezazula! Muxu handi bat, etxeko bakoitzaren partetik.


Andoain



ZORIONAK

Irailaren 20an Paulek 2 urte bete zituen eta irailaren 25ean Eneak 5. Zorion-muxu goxoak bientzat!


Villabona / Errezil



ZORIONAK IRENE

Urriaren 13an 6 urte beteko dituzu. Disfrutatu zure eguna. Muxu erraldi bat. Etxekoak.


Andoain



ZORIONAK ARAIA

Urriaren 12an Araia Mugerza Ayerza sorgin txikiak lehen urtetxoa beteko du. Ondo pasa eguna eta ez utzi bihurrikeriak egiteari! Zorionak etxekoekin partetik.


Asteasu



ZORIONAK

Imanol Usandizagak 17 urte beteko ditu urriaren 10ean. Zorionak txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Muxuak etxeko guztien partetik.

Andoain



ZORIONAK

Gure etxeko pottoko handienak, Ander Villarrek, hilaren 12an 8 urte beteko ditu. Zorionak etxeko guztien partez.

Andoain



ZORIONAK

Irailaren 30ean 2 urte bete zenituzten. Zorionak eta muxu handiak, pototok! Etxekoak.

Andoain

Odol-emaileak

■ ANDOAIN

Urriak 13, asteartea. 18:30-20:00, Anbulatorioan.

■ AMASA-VILLABONA

Urriak 30, ostirala. 18:00-20:30, Anbulatorioan.

■ ASTEASU

Urriak 27, asteartea. 18:30-20:00, Kultur etxean.



Zinema

■ AMASA-VILLABONA, GUREA HELDUENTZAT

Mama

Urriak 10, larunbata. 22:00.
Urriak 11, igandea. 19:30.
Urriak 12, astelehena. 21:00.

El desconocido

Urriak 17, larunbata. 22:00.
Urriak 18, igandea. 19:30.
Urriak 19, astelehena. 21:00.

Amama "euskaraz"

Urriak 24, larunbata. 22:00.
Urriak 25, igandea. 19:30.
Urriak 26, astelehena. 21:00.

SANTTIO ZINE KLUBA

Mariano Ozoresen

¡Cómo está el servicio!

Urriak 14, asteazkena. 17:00.
Sarrera doan.

HAURRENTZAT

Del revés

Urriak 11 eta 12. 17:00.

The minions.

Urriak 24 eta 25. 17:00.

■ ANDOAIN, BASTERO HELDUENTZAT

Everest

Urriak 10, lar. (3D) 19:30 / 22:00
Urriak 11, ig. 21:30 (3D)
Urriak 12, astel. 19:30 / 22:00
Urriak 13, astr. 19:30 (ikusl. eguna)

Amama "Estrenaldia, euskaraz"

Urriak 17, lar. 19:30 / 22:00
Urriak 18, ig. 19:30.
Urriak 19, astel. 19:30 / 22:00

El desconocido

Urriak 24, lar. 19:30 / 22:00

Urriak 25, ig. 19:30.

Urriak 26, astel. 19:30 / 22:00.

HAURRENTZAT

Los minions

Urriak 10 eta 12. 17:00.

Etxe magikoa

Urriak 24 eta 25. 17:00.

Vacaciones

Urriak 31 eta azaroak 1. 17:00.



14

ASTEAZKENA

BertsoaAMASA-VILLABONA
Diasporatik...
Subijana etxea, 19:00


16

OSTIRALA

AntzerkiaANDOAIN
Kreditua
Bastero, 21:30

18

IGANDEA

PailazoakAMASA-VILLABONA
Poxpolo eta konpainia
Gurea, 17:00**Mendizaletasuna**

■ AMASA-VILLABONA (Aizkardi)

Barrio-Batxikabo-Sobron (Araba).
Urriak 18, igandea.Urnietia- Adarra- Onddi-Hernani.
Urriak 25, igandea.

■ ANDOAIN (Euskalduna)

Zudaire-Urederraren sorrera
-Bakedanoko mendatea-Dulantz
(1239)-Irantzu monasterioa.
Urriak 11, igandea.Oria ibai bailararen itzulia.
7. etapa: Mandubia
-Murumendi-Iturburu mendatea.
Urriak 25, igandea.**Dantza**

■ ANDOAIN (Basteroko auditorioa)

Iargiaren Malkoa, Haatik
dantza konpainiaren eskutik.
Urriak 9, ostirala. 21:30. 10€.**Antzerkia**


■ ANDOAIN (Basteroko auditorioa)

Kreditua, Tanntaka Teatroaren
eskutik. Zuhaitz Gurrutxaga eta
Joseba Apaolaza.
Urriak 16, ostirala. 21:30. 12€.**Tailerra**

■ ZIZURKIL

**Helduentzako antzerki tailer
motza**, Iraitz Lizarragaren eskutik.
Azaro eta abenduko
asteazkenetan 19:00-21:00.**Erakusketa**

■ ANDOAIN. Basteroko erakusketa gela

Bizibideak, Gartxot Arregiren autoerretratu bidezko erakusketa.
Urriak 9-azaroak 14.
Astegunetan 18:00-20:00.
Larunbatetan 10:30-13:30 / 18:00-20:30.**Musika**

■ ANDOAIN

**Xabier Zabala & Bilboko
txistulari banda**. Gogoeta.
Urriak 17, larunbata. 20:00. 6€.
Basteroko ekitaldi aretoa.**Eilen Jewell**. Sundown Over
Ghost Town. Miss Tess & The
Talkbacks. Basterock gauak.
Urriak 31, larunbata. 22:30. 12€.
Basteroko auditorioa.**Gazteria**

■ ZIZURKIL

Gaztezulo gaztelekuak ordutegi
berria du. Astelehen eta
ostegunetan 17:00-20:00 (9-12
urte). Ostiral eta larunbatetan
17:00-20:00 (13-17 urte).**Pailazoak**

■ AMASA-VILLABONA (Gurea)

Poxpolo eta Konpainia,
Urriak 18, igandea. 17:00. 5€.

■ ANDOAIN

Txutxupe, Txirri, Mirri eta
Txiribiton Junior.
Urriak 25, igandea. 17:00. 4€.
Basteroko auditorioa.**Irekiera**

■ ZIZURKIL

Atxulondo kultur etxea eta
liburutegia azaroaren 2an
zabalduko dira. Ondorioz, bertan
eskainiko diren ikastaroak data
horretatik aurrera abiatuko dira.**Bertsolaritza**

■ AMASA-VILLABONA

Diasporatik... bertso jaialdia.
Andoni Egaña, Maialen Lujanbio,
Martin Goicoetxea eta Johnny
Curutchet, EKEk antolatuta
(Euskal Kultur Erakundea).
Urriak 14, asteazkena. 19:00.
Doan. Subijana etxea.


■ ANDOAIN

**Gipuzkoako bertsolari
txapelketa**. Final zortzirenak.
Urriak 11, igandea. 17:30.
9€. <16 urte 4€, bertsozale
elkarteko bazkideak 6€.
Basteroko auditorioa.**Azoka**

■ ZIZURKIL

Zizurkilgo XVIII.**Azoka berezia.**Artisau eta nekazarien
produktuak.
Denetarikoz postuak eta festa
egun guztian zehar.
Autobus zerbitzua Zizurkil
behetik gora eta alderantziz. Ikusi
egitaraua osorik kontrazalean.
Urriak 11, igandea.**Lehiaketa**

■ ZIZURKIL

**XIV. Teodoro Hernandorena
ipu lehiaketa**. Lanak
aurkezteko epea: Azaroak 20.
Baldintzak: www.aiurri.com.**Iraola**

Aholkularitza - Artezkaritza

ENPRESEN AHOALKULARITZAFiskala, dirukontuena, juridikoa, laborala,
aseguru orokorrakKale Nagusia, 37 - AMASA-VILLABONA
Tel.: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774



Andoaingo motor festa

Motozaleen bilkura izango da urriaren 17an Andoainen, “II. Andoain Motorfest” jaia antolatu baitu Andoaingo Motorzaleak elkarteak.

Andoaindarrak motorrak berotzen dabilta dagoeneko. Lehengo urtean proba moduan egindako jaialdiari jarraipena emanez, aurten egunpasa “osatuagoa” antolatu dute. Goizean, Lekunberri, Uitz, Leitza, Doneztebe, Lesaka, eta Oiartzundik buelta eginda, Goiburu auzora joango dira. Bertan bazkaldu eta, arratsaldean, jolasak egingo dituzte. “Goiburun ez da erraza jokoak motoekin egitea, arriskutsua izan daiteke”. Beraz, moto gabeko jolasak egingo dituzte giroa pizteko: txingak, koskola apustua, harri jasotzea... “Gure helburua jendea gustura sentitzea eta ondo pasatzea da”, azaldu dute Motorzaleak elkarteak kideek.

Festa honek gainontzeko elkarteekin biltzeko aukera ematen die. Antolatzaileen ustez, motoan ibiltzeko urte osoa izaten dute, baina horrelako bilkurek harremanak egiteko eta zaletasun bera duten jende gehiago ezagutzeko balio diete. Dena den, Goiburura jaialdian egon ez den jendea ere animatzera espero dute: “Egunean zehar motozaleak bilduta egongo gara, baina arratsaldetik aurrerakoa herriko jendeari irekita egongo da”.

ESKERRAK LAGUNTZAILEEI

Hilabeteetan lanean aritu dira egun hau antolatzeko eta lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete. Oso eskertuta daude San Estebango Gazte Asanbladarekin, lana erdibana egiteko prest agertu direlako eta antolaketa “asko”

erraztu dietelako. “Auzoarentzat ere onuragarria izango da, festa bertara eramango dugulako. Oso ondo portatu dira eta eskertu beharrean gaude”. Bestalde, Udalak ere interes handia jarri duela azaldu dute, eta egungo egoera ekonomikoa ikusita, emandako laguntza eskertu nahi dute. Azkenik, beren neurrian lagundu duten herritarrei ere eskerrak eman dizkiete.



Iban Korrotxano eta Iurgi Vitoria, antolatzaile batzordekoak.

Egitaraua

- 09:00** Zumea plazan bildu, kamiseta banaketa
- 10:00** Ruta irteera
- 13:30** San Estebanera iritsi eta poteoa
- 14:30** Bazkari popularra
- 17:30** Sari banaketa, jokoak, opari zozketa...
- 19:30** Lemon Twist taldearen kontzertua
- 23:00** Overloud kontzertua

PARTE HARTZAILEEI MEZUA

Izena emateko azken eguna urriaren 13a izango da. Parte hartu nahi dutenek kontuan hartu beharko dute 150 laguneko muga ipini dutela. Beraz, izen-ematea azken eguneraino ez uztea gomendatu dute. 20 euroekin festan parte hartu, bazkaldu eta kamiseta lortuko dute. Olajaunan edo Laboral kutzako kontuan eman daiteke izena.

Kontu zenbakia:
30350026240261132054

Kreditua

Tantaka
teatroa

Joseba Apaolaza eta Zuhaitz Gurrutxaga

Urriak 16, ostirala. 21:30

Gogoeta

Xabier Zabala &
Bilboko txistulari banda

Urriak 17, larunbata. 20:00

"ASPANOGI" elkartearen aldeko ikuskizun solidarioa



bastero
KULTURGUNA
ANDOAIN

Sarrerren salmenta



ANDOINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ZU ETA NI, EUSKARAZ?

MINTZALAGUNA

Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuek **MINTZALAGUNA** egitasmoa jarriko dute martxan beste behin ere. Egitasmo honen helburua da euskara ikasten ari direnei kalean hitz egiteko konfiantza hartzen laguntzea.

➔ Euskaraz hitz egiteko erraztasuna hartu nahi baduzu, animatu eta eman izena Villabonako eta Zizurkilgo Euskara Zerbitzuan.

➔ Eta euskaraz jakinda zure laguntza eskaini nahi badiezu euskara ikasten ari direnei, eman ere zure izena eta izan egitasmoan laguntzaile.

Villabonako Euskara Zerbitzua

euskara@villabona.net
tel. 943693501

Villabonako Euskara Zerbitzua



Zizurkilgo Euskara Zerbitzua

kultura@zizuri.com
tel. 943692495



XVIII. ZIZURKILGO AZOKA BEREZIA

URRIAK
11
IGANDEA



11:00-14:30/16:30-19:30

Baserriko produktuak eta artisauak.
Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan edo
Zublaumetxotik Zizurkil Goiko Plazara egun guztian zehar
(Ordutegia: 10:45-15:00 eta 16:30-21:00)

11:00: AZOKAREN IREKIERA

12:00: Haurrentzat puzgarriak eta jolasak.

14:30: Bazkari herrikola Zimiterioan. Txartelak salgai Iriarte eta
Egarri tabernetan. Prezioa: 20 euro.

17:00: Haurrentzat poniak, puzgarriak eta jolasak.

18:30: EMAKUMEEN GIZA PROBA, Desafioa: Olartzun-Zeanuri.

20:00: BIHOZKADA taldearen kontzertua.



LAGUNTZAILEAK:



OKUTXA k